



ELGOIBARKO IZARRARI BURUZKO IKERKETA SOZIOLOGIKOA

EGILEA: IGOR SOTA
DATA: 1994. urtea.

SARRERA:

- * % 54ak gaur egun orain dela 25 urte baino euskara gehiago entzuten dela aitortzen du.
- * Etxekoekin 'euskaraz bakarrik' % 31a aritzen den bitartean % 32a 'erdaraz soilik' aritzen da.
- * Lagunekin mintzatzerakoan % 38a 'erdaraz soilik' aritzen da eta % 14.8a 'euskaraz soilik'.
- * Lankideekin % 33.7 'erdaraz soilik' aritzen da eta % 11 'euskaraz bakarrik'.
- * Euskara gehien non erabiltzen duen galdetzerakoan, % 78.6ak 'etxean' erantzuten du.
- * Hizkuntza bat galtzeko arrazoi nagusi bezala, % 75.7ak 'hitzegiten ez delako' aipatzen du.
- * Euskara atsegina ala ezatsegina den galdetzerakoan, % 76.4ak 'atsegina' erantzuten du; 'Desatsegina' % 1arentzat da.
- * Lagungarria ala oztopoa den ere galdetu diegu: % 60.2ak 'lagungarria' erantzun du, % 9.8ak 'oztopo'.
- * Alferrrikakoa edo beharrezkoa den galdetzerakoan, % 77.9ak 'beharrezkoa' erantzun du, % 3.8ak alferrrikakoa.
- * Euskara borondatezkoa ala inposatua den galdetu diegu. % 67.6ak borondatezkoa erantzun du, % 5.5ak 'inposatua'.
- * Euskara hizkuntza zaharkitua ala modernoa da? % 44.9ak ez bata eta ez bestea ez du erantzun. Modernoa % 19ak erantzun du eta zaharkitua % 24.1ak.
- * Euskara ikastea zaila ala erreza da? Erreza % 39.3, zaila %39.3ak
- * Euskara hizkuntza bezala indartzearen alde % 94.2a azaltzen da.
- * Lan honek (euskara indartzea) bakarkakoa ala taldeka izan behar duen galdetzean, % 46.3ak 'taldeko lana' erantzuten du, biak % 42.8ak eta bakarkako lana % 8.0ak.

* Lan handia egiten ari al da Elgoibarren euskararen alde?
'Norbait saiatzen da' % 57.1ak erantzun du, 'Lan handia egiten ari da' % 32.3ak. 'Ez da ia ezer egiten' % 2.3ak.

* Nor arduratzen da Elgoibarren euskararen egoeraz?
% 36.6ak Ikastola erantzun du. % 19.0ak Elgoibarko Izarra.
% 18.5a euskaltegiak. %7.0ak Udala.

ELGOIBARKO IZARRA ELKARTEARI BURUZKO GALDERAK:

* Elgoibartarren % 68.7ari ezaguna egiten zaio Elkartearen izena.
% 27.8arentzat, berriz, ezezaguna da Elkartea.

* Ezagutzen dutenen artean % 52.1arentzat elkarte kulturala da Elgoibarko Izarra.
% 34ak euskara elkarte bezala definitzen du. % 12.5a ez da gauza definitzeko.

* % 52.4a ez da gauza Elkartea noiz sortu zen esateko. % 37.5ak badakiela aitortzen du. Sorrera urtea zehazterakoan % 54.5a ez da gauza urterik zehazteko. % 35.8ak 1963. urtean sortu zela aipatzen du.

* % 45.8ak ez daki Elkartearen baitan etapa edo aro desberdinik egon denik. % 37.2ak etapa ezbedinak egon direla dio. Bereizketa hau egiteko 'egindako lanean' oinarritzen da % 57.9a.

* Elkartearen aro historikoa eta aro berriaren arteko etenduraz ohartu direnak % 57a osatzen dute.

* Elkartearen helburuak ezagutzen dituzten galdetzerakoan
% 55.6ak baietz erantzuten du. % 24.7ak ezetz.

* Helburu hauek zeintzuk diren galdetu eta % 33.7ak euskararen aldeko lana 'dinamizatu eta koordinatzea' dela esan du. % 26.4ak 'Jendea kontzientziatzea'; % 14.9ak 'euskararen normalizazioa' erantzun du.

* 'E. Izarrak euskal kulturaren eta euskararen normalizazioaren alde lan egiten du':

- . Guztiz ados: % 28.8
- . Ados: % 57.6 (% 86.4)

* Elkartea INDEPENDIENTEA ala DEPENDIENTEA da?

- . % 44.1ak independentea.
- . % 35.1ak ez daki.
- . % 20.8ak dependientea.

* Elkartea LUKRATIBOA ala EZ LUKRATIBOA da?

- . % 67.7ak ez lukratiboa.
- . % 25ak ez daki.

* Elkartea elgoibartar guztiei irikia al dago?

- . % 80.6ak bai.
- . % 16.0ak ez daki.

* Elkartea beste talde, erakunde edo instituzioren batekin harremanetan al dago?

- . % 44.1ak baietz.
- . % 35.4a ez daki.
- . % 20.5ek ezetz.

* Elkartea alderdi politikoren batekin lotzen al duzu?

- . % 56.7ak ez daki.
- . % 36.3ak ez.
- . % 7ak bai. (7 PNV/ 1 HB/ 1 EA/ 6 EZ DAKI)

* Elkarreak eta Udalak ba al dute loturarik?

- . % 55.8ak bai.
- . % 41.4ak ez daki.

* Harreman honen arrazoa?

- . % 33.5ak finantziario arrazoiak.
- . % 20.5ak kooperazio harremanak.

* Elkarteren bateko bazkide al zara?

- . % 55a ez.
- . % 42.9a bai

* Zein eratakoa?

- . % 34.5a kulturala.
- . % 33.9a kirol elkarrea.

* Elgoibarko Izarrak antolatutako ihardueretan parte hartuko zenuke?

- . % 37.8ak 'ihardueraren arabera'.
- . % 21.1ak 'denboraren arabera'.
- . % 15.5ek 'bai dudarik gabe'.
- . % 14ak 'ez nuke parte hartuko'.

* Zer da euskararen normalizazioa?

- . % 36.8 'Euskal Herrian edozein momentu eta egoeratan euskaraz mintzatzeko aukera lortzea'
- . % 16.3 'Guria dan horixe berreskuratzea'

* Aukeratu esaldi bat:

. 'Euskararen alde egiten den lan guztia positiboa da; Elgoibarko Izarra ere horretan aritzen da; Normalizazio bide horretan lagun dezake': % 73.0ak

. 'Elgoibarko Izarra Elgoibarren euskararen alde eta euskal kulturaren alde lan gehien egin duena izan da': % 12.4ak.

* Elgoibarko Izarra al da euskararen normalizazio ahaleaginean motoretariko bat?

- . Bai % 73.4ak.
- . Ez daki % 20.4ak.

* Lan honetan motore edo erdigunea izaten jarraitu behar al du?

- . % 79ak bai.
- . % 20.6ak ez daki.

* Elgoibarko Izarraren helburuekin ados al zaude?

- . Ados % 54a.
- . Guztiz ados % 31.4a. (% 85.4)

* Aukeratu esaldi bat:

- . 'Nik Elgoibarko Izarraren lan, efikazia eta emaitzetan sinisten dut': % 73.4
- . 'Ez nago konforme Elkartearen jardunarekin eta gainera ez dut sinisten euren lan, efikazia eta emaitzetan': % 17.9
(?)

BESTELAKO DATUAK:

* Elgoibarko Izarrako bazkide al zara?

- . Ez % 68.7
- . Bai % 17.8
- . Ez daki % 13.5

* Bazkide izateko gonbitea jasoko bazenu?

- . Ez dakit % 51.4
- . Baietz % 33.6
- . Ezetz % 15.0

* Nola bete dute inkesta?

- . Euskaraz % 53.6
- . Gazteleraz % 46.4

* Inkestatuen adina:

- . Nagusiak % 48.1
- . Gazteak % 31.8
- . Zaharrak % 20.1

* Elkarrizkatatuaren jaiolekua:

- . Elgoibarren % 54.6
- . E.K.A. % 23.6 Nafarroa eta Iparraldean % 1.0
- . Espaianiar Estatuan % 20.6

* Inkestatuen artean euskara

ULERTU: Oso ondo + nahiko ondo	% 70
HITZEGIN:	" % 62
IDATZI:	" % 42
IRAKURRI:	" % 51

* Inkestatuen artean gaztelera

ULERTU: Oso ondo + nahiko ondo	% 98
HITZEGIN:	" % 97
IDATZI:	" % 92
IRAKURRI:	" % 94

* Nola moldatzen zara hobeto, euskaraz ala gazteleraz?

- . Gazteleraz % 56.6
- . Bietan berdin % 26.6
- . Euskaraz % 16.8

* Zure burua nazionalista edo abertzaleztat al duzu?

- . Bai % 48.4
- . Ez dakit % 27.6
- . Ez % 24.1

* Oso euskalduna ala oso española:

- . Oso euskalduna % 44.3
- . Oso española % 4.3
- . Biak berdin % 15.6